



“Jon eta Jone” irratsaioaren lanketa didaktikoa IKASBIL atarian

*Eskarne Lopetegi Zalakain**

Euskadi Irratiak *Jon eta Jone* fikziozko saioen edizio berriari ekin zion 2015eko urtarrilean. Atal berriak sortu zituen, eta hiru minutu inguruko fikziozko saioak emititu zituen, *Prime time* tarterako eduki gisa. Guztira, ehun eta hamalau atalek osatu zuten bilduma.

2005ean emititu zen fikziozko saioez osatutako bilduma honen aurrekaria. *Jon eta Jone* saioen kapitulu haiek argitaratu, eta B2 eta C1 mailetakoa jardueraz hornitu zituen HABEK.

Oraingo ekitaldian aurreikusitako produkzio-emanarekin beste hainbeste egin daitekeela eta kapitulu berri hauek didaktikoki ustiatzeko baliagarriak direla iritzita, beste egitasmo bati ekin dio Materialgintza Atalak.

Egitasmo didaktiko honek badakartza, hala ere, hainbat berrikuntza. Horien artean, nagusia hauxe: HEOCaren ikuspegi pedagogiko eta ildo metodologikoei jarraituz, jardun biko ikasteredurako sekuentziak diseinatzeari ekin diogu.

* E-Lopetegi@habe.eus

**1. Jon eta Jone
fikziozko saioen
ezaugarriak**

Irratsaio hauen helburu nagusia da tarte entretenigarria eskaintzea entzuleari. Horretarako, tentu handiz aukeratu dira gaiak eta egoerak, eta ahozko ereduari oinarrituta idatzi dira gidoiak. Hizkera naturala darabilte, bere horretan azalduz etenaldi, errepikapen edo elipsiak; bikote arrunt batek eguneroko harremanetan era naturalean erabili dezakeen hizkera, ohiko egoera hurbilak erakutsiz, umorea tartekatuz eta euskalkiak nabarmenduz (bizkaiera eta gipuzkera, kasu honetan).

Saioen ezaugarri hauek oso erabilgarri bihurtzen ditu B2 eta C1 mailetarako ikasleentzat langaiak sortzeko oinarritzko input gisa, Helduen Euskalduntzearen Oinarritzko Curriculumak (HEOC) ezarritako irizpideak kontuan hartuz. Alde batetik, Curriculumaren oinarritzko ikuspegia aintzat hartuta, testu komunikatiboak dira eta ekintza komunikatibo baten edo batzuen adierazle. Beste alde batetik, B2 eta C1 maileri dagokien gaitasun sozio-linguistikoa, testuala, linguistikoa eta estrategikoa garatze aldera, maila horietan zehaztutako edukiez osaturiko ahozko testuak dira.

**2. Jon eta Jone
fikziozko saioen
ustiapen didakti-
koa: jardun biko
eredurantz**

Jon eta Jone saioaren kapitulu bakoitza izango da unitate didaktiko baten oinarrian dagoen hizkuntza-inputa. Unitate hauetan, ahozkoaren ulermena eta mintzamina lantzeko proposamen didaktikoak egongo dira, taldeko eta bakarkako ikastereduetan. Beraz, jardun biko ereduari erantzuteko diseinatu dira.

HEOCaren gidalerroei jarraituz sortuko dira ikastunitate hauek. Curriculum printzipio nagusi batean oinarritzen da: “hitz egitea gauzak egitea da, eta eginez ikasten da egiten”. Hori horrela izanik, “egitea” da helburua, hizkuntzarekin gauzak egitea. Beraz: ikasleak zerbait egitera heldu behar du, baina taldean, zerbait partekatuz eta parte hartuz; izan ere, ikasgela komunikazio- eta elkarreragin-gunetzat hartuko baita. Ikuspegi honen arabera, inguru fisiko horretako egitekoak berariaz lantzeko moduan eskaini behar zaizkio ikasleari, bakarka zein taldean.

Ikasleak audioa entzungo du ikasgelan irakaslearen gidaritzapean, ulermen-jarduerak egingo ditu, eta, beste ikaskideekin batera, ekintza komunikatibo bat burutuko du. Ekintza hau garatzeko, ikasleak bakarkako lana egin beharko du alde aurretik: lan hau gidatua izango da, helburu bat edo batzuk izango ditu, eta “gelan gertatuko den ekintzarako” derrigorrezkoa. Ez da, hala ere, ziklo didaktikoa bukatuko, ikasleak berriz hausnartzen ez badu bakarka. Une honetan, ikasleak hizkuntzan berriz arreta jartzeko aukera izango du, baita ulermen-jarduera xeheagoak egiteko ere.

Proposamen didaktiko hau, beraz, elkarrekintzan oinarritutakoa izango da; trebetasun hartzaileak bietara landuko dira, eta hausnarketarako eta auto-ebaluaziorako tarteak proposatuko dira bakarlanerako:

Baliabide linguistikoak gauzatu beharreko ekintza komunikatiboaren baitan eskuratuko dira.

Ikasgelako dinamikak ikasleen zein irakasle-ikasleen arteko elkarreragina bultzatuko du, eta, ikaslearen konplizitatea lortzeko, ezinbestekoa izango da harreman-sarea, lan-giroa, lankidetzaz, enpatiaz, begirunea eta interesa sortzea.

2.1. Ikastunitateen egitura

Egitekoen, lekuen eta denboraren antolaketari dagokionez, bakarlanak ehuneko hogeita hamarra hartuko luke. Ikasgelakoa da jardun nagusia.

Ikasleen arteko elkarreragina aurrez aurrekoa izatea aurreikusi da. Ez dago sarean modu sinkronikoan edo ez-sinkronikoan idazketa kolaboratiborako edo sareko ahozko saiotarako proposamenik.

Bakarlana ikasleak aukeratzen duen tokian egingo du. Nahi izatera, Modulen egin dezake fitxan bertan duen sarbidetik sartuta.

Gelaz kanpo: bakarkako aurre-lana

- Entzun aurreko lanketa
- Gaiaren aurreikuspenak egin
- Aurrezagutzak sustatu
- Hiztegi-mailako lanketa egin
- Aurkeztutako gaiaren aurrean, nork bere eskarmentuaren berri eman
- Hizkuntza-baliabideak aurreikusi eta landu
- Gelan landuko den jarduerarako hizkuntza sortu

Gelan elkarrekin entzun: esanahia partekatzen

- Inputaren ulermena landu, ulermen orokorra eta xehea landuz
- Elkarreraginean burutu jarduera guztiak: parte hartuz eta partekatuz
- Arreta jarri hizkuntzan eta unitate lexikaletan
- Hizkuntza sortu: Inputarekin lotutako ekintza komunikatibo jakin bat garatuko da, esanahia negoziatuz beti.

Gelan entzun aurretik:

- Aurrezagutzak pizteko jarduerak
- Hiztegia lantzeko jarduerak

Gela entzun bitartean:

- Ulermen orokorreko jarduerak
- Ulermen xeheko jarduerak
- Hizkuntza-dukietan arreta jartzeko jarduerak

Gelan entzun ondoren:

- Unitate lexikal eta hizkuntz edukien lanketa: arau eta eredu en aurkezpena. Testu-eredu ugarien aurkezpena. Ondorioak atera.
- Elkarreragina talde txikian: binaka
- Elkarreragina talde handian

Gelaz kanpo: bakarka entzun eta hizkuntzan jarri arreta

On-line eredu en: Ikaslea da entzunaldien kudeatzailea. Entzunaldi gehiago eta beste helburu bat duten proposamenak. Arreta zertan jarri ere bere esku gera liteke.

Entzun bitartean:

- Ulermen orokorreko eta xeheko jarduerak
- Hizkuntza-dukietan arreta: birpasa
- Transkripzioaren lanketa

2.2. Entzunaldiaren antolaketa

Proposamen didaktiko huen bidez, ekintzara ez ezik, prozesura ere zuzenduko dira jarduerak. Helburu nagusia da entzun eta zerbait egitea. Hor-taz, entzunaldia prozesuaren ikuspegitik antolatu behar da, eta ikasleak, eskuratu duen esanahiaz eta hizkuntza-formez baliatuz, elkarreragineko jarduerak burutzeko aukera izan behar du. Hau guztia aurreikus litekeen logika didaktiko eta koherentzia tematikoaren barruan.

- Entzun aurretik, testuingurua (gaia, testu-era...) landuko da, eta entzunaldirako ikaslea motibatuko. Hiztegiari ere erreparatuko zaio.
- Entzun bitartean:
 - Ulermen orokorra lantzeko entzunaldia, testuinguruaren edo hiztunen asmo komunikatiboaren inguruko galderak egiteko tartea izango da.
 - Ulermen xehea: zehaztasun handia eskatzen duten ulermen-jarduerak, erantzunen inguruko hausnarketa...

- Entzun ondoren: arretagune bihurtzen dira hizkuntza-funtzioak, hizkuntza-formak, hitzen esanahiaren inferentzia, transkripzioaren lanketa...

Aipatutako urrats hauek oinarrizkoak dira, baina zeregina ez da hor bukatuko. Entzungaia abiapuntu izanik, ikasleak taldean zerbait egin behar baitu.

2.3. Bakarka egiteko jardueren ezaugarriak: gelaz kanpo

Bi une nagusi aurreikusten dira bakarkako jarduerak egiteko: entzun aurrekoa eta entzun ondorengoa. Beste uneekin konparatuta, helburu didaktikoak eta estrategiak oso desberdinak dira, eta ikasgelaz kanpo gertatuko dira.

Ikasleak bakarka eta gelaz kanpo landuko ditu saioan entzungo duen inputaren gaia, egoera, intentzio komunikatibo eta baliabide diskurtsiboak. Honela lortu nahi da ikasleak jarrera motibatuagoa eta aktiboagoa izatea entzungaiaren aurrean —ulermen arrakastatsuagoa lortze aldera, batez ere—, baina baita, bere aurrezagutzak astinduz, entzun ondorengo jarduerak aiseago egiteko ere.

Adibidez, ikaslea bere eskarmentutik abiatuta, bere aurrezagutzaz baliaturik erantzungo dio jarduera honi.

1. irudia:

Beste hainbeste gertatzen da ondoren datorren honetan. Kasu honetan, hizkuntza-euskarri gehigarriekin:



1- Entzun aurretik

1.1 Korrika egitea

Korrika egitea izango duzue hizpide ikasgelan. Aurretik, prestatu zer esan dezakezun behean dituzun atal hauei buruz eta bildu ideia moduan. Ikasgelan, mahai-ingurua egingo duzue eta bertan azalduko duzue pentsatutakoa.



Idatzi ideiak atal hauen inguruan:

- Korrika egitea moda ote den
- Onurak eta arriskuak zein diren
- Edonorentzako kirola den ala gaitasun berezia behar ote den
- Nolako prestaketa egin behar den
- Puntako material tekniko beharrezkoa den ala ez
- Besterik...

Adibide hauek lagungarriak izan daitezke zure ahozko azalpena egiteko garaian:

- Gure artean lortu duen arrakasta ikusita, esan daiteke...
- Jende askok itxurari baino ez dio begiratzen, horregatik...
- Korrika edonork egin dezakeen kirola bada ere, badira...
- Umetan, gaztetan... lantzen hasi beharreko jarduera fisikoa da, naturalki egiten...
- Nolako materiala erabili ere bada garrantzitsua, izan ere ...
- ...

Une honetan, hizkuntza-egitura jakin batean fokalizatzea ere oso eraginkorra da. Hona hemen adibide bat:

3. irudia:

1.2 Bere burua



Zer da selfie bat? Nork bere buruari argazki bat ateratzea

Izenordain gisa erabiltzen da egitura hau: **NOR(K) BERE BURUA** eta **deklinat**u egiten da.

- Nor bere buruaren jabe izan
- Nork bere buruari galdetu
- Nork bere buruaz barre egin
- Nork bere burua ondo ikusi

Perpaua **erreflexiboak**, euskaraz, **BERE BURUA** sintagmaz (eta hala dagokionean, NEURE BURUA, GEURE BURUA, ZEURE BURUA etab.) baliatuz eratzen dira. **ELKAR** bezala, BERE BURUA sintagmak ez du berezko **erreferentziarik**. Erreferentzia **aurrekari** batetik jaso behar du:

- *Katuak BERE BURUA bakoitik behera bota zuen.*
- *Guk GEURE BURUARI bakarrik begiratzen diogu.*

Bi perpaua horietan, hurrenez hurren, erreflexiboaren **aurrekaria katuak** eta **guk** dira.

Dena den, euskara mintzatuan batez ere, bai elkarkariaren ordeztu bai erreflexiboaren ordeztu, aditza gaztelaniaren antzera jokatzeko ohitura dugu, aski baita horretarako nork-nor aditzak nor aditz gisa jokatzeko. Horrelako esaldiak sortzen dira, beraz:

- Gero ikusiko gara. (= Gero ikusiko dugu elkar)
- Entregatu egin naiz. (= Neure burua entregatu dut)

Nolanahi ere, **hobe** horrelakoetan **ELKAR** eta **NEURE BURUA** erabiltzea.

Azaldutakoaren haritik, berridatzi hurrengo esaldiak:

Argazki horretan ongi ikusten naiz.

Ez dut txokolaterik erosten. Ederki ezagutzen naiz.

Azkenean gaizkilea entregatu egin zen.

Adibide hauek bakarkako jarduerak dira, gelako entzunaldiaren eta ikasleek elkarreraginean egingo duten jardueren euskarri. Jarduera hauek egin ezean, erabat desitxuratuta geratzen dira gelako jarduerak.

Ikasleak, hortaz, gelaz kanpo egingo duen lanaren ardura hartu behar du; konpromisoa, alegia. Lan hori burutzen ez duen ikasleak hautsi egingo du gelako dinamika; izan ere, ikasle guztiak dira beste ikasleen ikasprozesuaren eragile.

Entzun aurreko unean, taldeko jarduerarik ere gara daiteke. Aurrezagutzak partekatzeke unea izan ohi da, eta estrategien lanketa esplizituak lekua izan lezake tarte didaktiko honetan. Hala ere, *Jon eta Jone* sail honetan ez dira honelako asko proposatu.

2.4. Taldeko jardueren ezaugarriak

2.4.1. Gelan entzun

Ulermen orokorra nahiz xehea lantzeko proposamenak aurkezten direnean, gelako jardunean ikasleek jardueraren urrats batzuk partekatu egingo dituzte eta feedbacka ere emango diote elkarri.

Adibideak eskaintzen dira, ikasleak euskarriak izan ditzan hizkuntza sortzeko garaian, eta, baita ere, ondo ikus dezan zertan diren ikaskideen arteko elkarrizketa horiek; alegia, jardueraren helburua zein den, zer eskatzen zaion.

2- Entzun bitartean

2.1 Kontu ugari

🔊🗣️👤 Zinemaren aitzakian, kontu ugari atera dira azalera elkarrizketan. Zein iruditu zaizu aipagarriena, xelebreena, zentzugabeena...? Komentatu zure ikaskidearekin ea berak zer dioen.

- 😊 **Adibidez:**
- *Harrigarriena iruditu zait zinema oso garestia ez dela esatea*
 - *Oso xelebrea izan da nire ustez Jonek Paquirin buruz egin duen komentarioa*
 - *Nik amaiera hori ez nuen espero eta harritu egin nau*
 - ...

2.2 Galderei erantzun

🔊🗣️👤 Elkarrizketan oinarritutako galderak dituzu segidan. Aukeratu erantzun egokiak, eta ondoren, ikaskidearekin alderatu. Azkenik, elkarrizketa entzun berriro egin duzuen egiaztatzeko.

Zergatik deitu dio Jonek "xuhurra" Joneri?

- Litxarriak berak erosi behar izan dituelako
- Joneri sarreraren dirua bueltatu behar izan diolako
- Bere gominolarik ez diola emango esan duelako x

Zer iruditzen zaio Joni filmeko protagonista?

- Aktore ona dela baina ez zaio bere fisikoa gustatzen
- Guapa, aktore ona eta gorputz ederra duela x
- Joneren antza duela

Zinemaren prezioari buruz zer esan dute?

- Oso garestia iruditzen zaie
- Gazteek ezin dutela prezio hori ordaindu
- Merezki duela sarreraren prezioa ordaintzea x

2.4.2. Gelan, elkarrekin jarri arreta hizkuntzari

Hizkuntza-formen lanketa ere parteka daiteke gelan. Entzun ondoren burutzeko jarduera izan ohi da, normalean, une didaktiko honetan egituraz hausnartu eta jabetzeko.

2.4.3. Gelan, hizkuntza sortu elkarrekin: esanahiaren negoziazioa

Entzungaitik abiatuta, aintzat hartuta orain arte landutako egoera, gaia eta asmo komunikatiboa, ikasleek ahoz garatuko dituzte solasaldiak eta eztabaidak, elkarreaginezko jardueretan, betiere esanahia negoziatuz; eta ondorioak aterako dituzte, adostu, bateratu, besteen ideiak interpretatu... Hau da, jardueran ikasleari egitekoa proposatuko zaio, eta ez zer esan behar duen. Jarduna beren ezagutzatik sortua izango da, beren izaeraren arabera, hizkuntza-baliabide jakin batzuekin. Jardueran, euskarri edota adibideak eskainiko zaizkio, aukeran erabil ditzan. Ikasleak hizkuntza solaskidearekin batera sortuko du. Horixe da helburua. Horretarako, proposamen ugari eskaintzen dira unitate hauetan: antzezpenak, ideiak biltzea, konparazioak egitea, ikuspegi bat baino gehiago azaltzea...

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Ezkontzeko mezua

🔊 Partekatu ikaskidearekin 🏠 ariketako mezu ezkutua. Ondoren, entzun gainerako ikaskideenak. Antzekoak idatzi dituzu? Zein izan da mezurik originalena?

3.2 Ezkontzeko eskaerari erantzun

✍️👂👤 Jon eta Joneren arteko elkarrizketa entzunda, garbi dago "Bai, nahi dut" soil bat baino zerbat gehiago esan daitekeela ezkontzeko proposamenaren edo ideiaaren aurrean.

Irakurri beheko egoera, eta ikaskidearekin batera, egizue elkarrizketa horren antzezpena. Hemen dituzu Irratsaioko hainbat esaldi ideia bezala erabiltzeko.



Eratzuna, musika erromantikoa prest daukazu eta ilusio handiz eskatu diozu zure bikotekide kuttunari zurekin ezkontzeko. Zu baiezko biribil baten zain zaude, baina berak "ez dakit maitea,... ez daukat oso garbi..." harrigari batekin zapuztu dizu ideia. Baina, nola liteke???? Berehala eskatu dizkiozu azalpenak. Eta, berak noski, "pisuzko" arrazoiak ditu.

😊 Elkarrizketan entzun dituzun hainbat esaldi:

Argibideak eskatu/emateko

- Zer esan nahi duzu horrekin?
- Entzun duzuna,...
- Nik ez daukat presarik, ez al gauda ongi horrela?
- Nigatik behintzat ez beldurnik izan.
- Ez dut zuregatik egiten,...
- Honek ez du zenikusirik...-rekin...
- biok gauza bera pentsatzen dugula jakin nahiko nuke
- Izan ere, ezkontza hitzak karga gehiegi du niretzat
- nik diodan gauza bakarra da mantso joan nahi dudala

Bestea konbentzitzeko argudioak:

- Iruditzen zait badaukagula abantaila bat: elkar ondo ezagutzen dugu eta badaukagu konfiantza gauzez argi hitz egiteko.
- Jone, nahi baduzu, musikal bat muntatuko dizut ezkontza eskaria egiteko ere. Nahi duzuna, zu eroso eta gustura egiteko.

Ikastunitatean, entzungaiak ez ezik, testuak ere eskaintzen dira. Une didaktiko desberdinetan eskaini daitezke. Eredu honetan, zati bat eskaini da ikastunitate-hasieran eta bukaeran osatu. Horrezaz gain, azken jarduerari begira, beste bat eskaintzen da; izan ere, ikasmaterial hauen beste ezaugarrietako bat da testu-erenugaritasuna:

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Musukatzaile arrakastatsua izan nahi?



Musukak direla eta, hemen duzu unitatearen hasieran irakurri duzun testuaren jarraipena. Oraingoan, ordea, musu egokia emateko aholkuen berri ematen du. Testua irakurri ahala, saia zaitez bertan aipatzen diren aholkuak osatzen, esaldi-zatiak dagokien lekuan jarrita. Bukatutakoan, alderatu zure ikaskidearekin egindakoa.

kontua ez da erronka botatzea
garrantzitsua da, halaber, sudurretik arnasa hartzea
onena ezpainak arin eta gozo elkartzea da
ez lukete bere musu uholdearekin gehiegi gozatuko
sentsazioak areagotu egiten dira
ez zaitez gehiegi luzatu
kalitatea kantitatea baino garrantzitsuagoa da
ez da sekula azkar ibili behar

Ez azkar ibili, ez temati izan



Adituen arabera, musukatzerakoan, . Hasteko, , mingaina dantzan jarri gabe. Bestalde, begiak itxita, entzumen, ukimen eta usaimen . Garrantzitsua da, halaber, , musua gehiago luzatzeko. Dena den, eta zinema munduko musurik luzeena gaingitzen ahalegintzea: hiru minutu eta bost segundo! Musu hori "You are in the Army now" filmean ikus daiteke, eta Jane Gimán aktorea, eszena errodatzerakoan, zorabiatzeaz egon zen, Regis Tommey-ren ahoari itsatsita. Hortaz, badaezpada . Erietxea ez baita musuaren ondorioak gozatzeko lekurik erotikoa!

Sexu edo maitasun kontuetan bezala, musuetan ere . John Barrymorek, AEBetako zinema mutuko galairik galaienak, film berean musu gehien emandako zaldunaren errekorra du. Film bakar batean ("Don Juan", 1926) 127 musu banatu zituen Mary Astor eta Estelle Taylor-en artean. Tematia gizona! Egungo emakumeek, ordea, , izan ere, adituen arabera, garai hartako musuak hitz gutxitan labur litezke: lehorrak eta ahoa itxita di-da emandakoak. Zorionez, praktika guztiak, urteak joan urteak etorri, hobetu egiten dira, eta musukatze ere ez da salbuespena.

<http://www.gaztezulo.eus/jarraipena>

Eta jarduera honen jarraipenean, ikasleak bere eskarmentua azaltzeko, ikaskidearekin partekatzeko aukera izango du, eta elkarrekin galdera bati erantzun beharko diote. Eginkizun honetarako ere, beste testu eredugarri bat eskaintzen da.

3.2 Lehen musua

  Gogoratzen al duzu zuk, edo zuri, emandako lehen musua? Irakurri dituzun baldintzak bete al zituen? Partekatu zure ikaslidearekin une hartan bititako esperientzia. Nahi izanez gero, irakurri nola kontatzen duen gazteko batek berak bititakoa, eta erreparatu azpimarratuta dauden zatiei zure kontaketa ideia bezala erabiltzeko. Ondoren, partekatu zeure esperientzia ikaslidearekin. Oso desberdinak izan al ziren?



16 urte nituela neska batez maitemindu nintzen, ez nion inori kontatu, denbora luzez niretzat gorde nuen, oso lotsatia bainintzen. Hilabete batzuk igaro ziren eta uda osoa lagun moduan gelditzen eman genuen. Baina ez nintzen ausartu nire sentimenduak adierazten. Lagunei kontatu nien, eta haiek maite nuen neskari sentitzen nuen esan behar niola esaten zidaten. Baina saikera asko egin nituen arren, ez nuen lortu uda osoan ezer esaterik.

Urriko asteburu batean, ordea, zinematik irten eta agurtzerakoan, unebrot bat itxaroteko eskatu nion. Oso urduri nengoen... izerditan-blai! Baina berarengana hurbildu, eskutik heldu eta nirekin ateratzeko eskatzera ausartu nintzen. Eta berak... baietz esan zidan! Nire poz hartan ez nintzen konturatu nola gertatu zen, baina bat-batean, ezpainetan musu bat ematen zidala sumatu nuen. Zirraragarria! Ordura arte izan nuen sentsazioirik onena izan zen musu hura. Jokoz kanpo utzi ninduen eta bigarren aldiz musukatu behar izan ninduen errealitateara bueltatzeko. Orduan bai, gozo-gozo musukatu ginen, begiak itxita, eta besarkada bero eta luze batean bat eginda.

Gorka

2.5. Bakarka on-line

Bakarka eta on-line egin daitezkeen jarduerak dira. Bertan ikastunitatearen une guztien inguruko jarduerak eta informazioa biltzen da; entzungaia nahi adina entzunez eta transkripzioa baliatuz egin daitezke.

Ikasleak, gelako jardunaren aurretik, bertan izango du egin beharrekoa. Nahi izatera, plataforman bertan egin ahal izango du zenbait kasutan. Besteetan, gelarako zer prestatu behar duen, instrukzioak izango ditu. Ikaslearen orrian, pdf artxiboan dagoen informazioa izango da normalean.

Ulermen orokorra eta xehea lantzeko jarduerak eskainiko dira. Ariketa itxiak, autozuzenduak.

Hizkuntza-arauak lantzeko jarduerak: Esanahiaz jabetu ondoren, hizkuntza-egituretan arreta jartzeko jarduerak izango dira. Entzun duen testuan aurkeztuko dira arauak, egiturak edo landu beharreko esamoldeak. Adibide gehiago ere aurkeztuko dira: elkarriketa-zatiak izango dira.

3. Nola aurkeztu ikasmateriala: informazioaren kudeaketa

Ikasbilen argitaratuko dira bilduma honetako ikastunitate guztiak. Ikaslearen orria, irakaslearen orria eta entzungaia bera (transkripzioa eta guzti) fitxa bakarrean ematen dira argitara. Informazio guztia bildua dago, elkarriri lotua: bai Interneten bertan, bai eta pdf artxibotan argitaratzen diren fitxetan ere.

Egitura hau du ikasmaterial honek:

8. irudia:

EU | ES | FR | EN • Home > Egileak > Atazak > Atazaren Fitxa Bilatzailea | Bilaketa aurreratu | Bilaketa gidatua

Atazak

Motoa. JJ-34

Motoak izango dira Jon eta Joneen arteko aliantzaren ardatz nagusia

Irakaslearen gida

Ikaslearen orriak

Moto-estiloak pertsonalitatea adierazten du?

Entzungaiak

Ataza ireki

Interesatzen zaizu

Jon eta Jone II. Motoa (34) *****
Azpaldian, Jon eta Jone motoan ibiltzen ziren. Istripuaren ondoren, ordea, Jone ez da bertiro mo... [+]
Dokutela - 2015-mar-09 - 425 Bisita

Jon eta Jone. Bigarren aldiko atal guztiak *****
Gaztetan elkarrekin bizi izandako bikotearen solasaldi bertak: irati-2015-09-26 - 3971 Bisita

elhuyar hitzgiak

C1 / B2

Audiokak +

2015-eko-22

Zerbaki: 1913110

Egilea: Uenitez Reyes, Belen

Helburu didaktikoak:

- Taldea-lana
- Ahozkoaren ulermena
- Mintzarena

Euskalkia: Nahasia

Bisita kopurua: 327

Etiketa-lainoa

istripu estu moto motocicle motozikleta motoyette vespa Ahozkoaren ulermena Mintzarena Taldea-lana

Pdf artxiboetan dauden jarduerak ikasbileko fitxaren zenbakia daramate, eskura izan dezaten, bai ikasleek, baita irakasleek ere. Bakarka egiteko diren jardueretan, on-line egitekoetz gain, pdf artxibotan dauden bakarkako jarduera guztiak ere biltzen dira. Nolanahi ere, irakaslea da ikastunitate hauen gidaria. Berak du ikuspegi orokorra, eta bera da kudeatzailea. Hori dela eta, ikasmaterialen jardun biko izaera ahaztu gabe, ikasle-taldeen beharren araberako garatuko eta egokituko ditu ikasmaterial hauek.

4. Argitalpena

Unitate didaktiko eta entzungai bakoitza Ikasbil atarian argitaratuko da. Horretarako, 2015eko abendua bitarterako argitalpen-egutegi bat aurreikusi da, kontuan hartuz, betiere, irratiko emisioaren ondoren argitaratuko direla Ikasbil atarian. Belen Benitez irakasle eta materialgilea da ikasmaterial hauen egilea. Berak sortu ditu jarduera guztiak, HABEko Baliabide Didaktikoen Atalaren lankidetzarekin.

Bibliografia

HABE. (2015). Halduen Euskalduntzerako Oinarrizko Curriculum. Donostia: HABE.

Martín Leralta, S. (2013). Fundamentos y retos didácticos de la comprensión oral en ELE. In M. Szychala, L. Sagermann eta J. Hadas (ed.), *El alumno de ELE: un alumno extraordinario: Marco teórico y propuestas prácticas para trabajar en la clase de Español Lengua Extranjera (ELE)*, (85-98 or). Poznan: Comité Central de las Olimpiadas de Español: Asociación Neofilológica Polaca. Hemendik berreskuratua: http://neo.amu.edu.pl/iframe/imagenes/dokumenty/ksiazka_olimpiada_jezyka_hispanskiego.pdf

Ellis, R. (2005). *La adquisición de segundas lenguas en un contexto de enseñanza. Análisis de las investigaciones existentes*. Hemendik berreskuratua:

http://www.mecd.gob.es/dctm/redele/Material-RedEle/Biblioteca/2006_BV_05/2006_BV_05_04Ellis.pdf?documentId=0901e72b80e3a029